



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 20a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituena. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioak 2012ko urriaren 6an Segovian kazetaritzaren alde onetsi zuen manifestuarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio greba egun bat egiteari, zeinetan gizon eta emakumeak, langileak, doikuntza-politiken aurka agertuko baitira. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, lankidetzaren deszentralizatuaren aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua etxebizitza-utzarazpenen betearazpenak gelditzearen alde agertzen baita. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa noiz sartuko den indarrean Nafarroako Oinarritzako Laguntzako ordutegia eta arreta jarraitua eta larrialdietakoa arautzen dituen foru dekretua, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakitekoa komenigarria ote den Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan, Amaya Zarranz Errea andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak lehendakariak uste al duen autokritikarik egin beharko lukeela, agerian geratu ondoren bere Gobernuak nafarren ekonomia eta eskubide sozialak hondoratzen ari dela, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).

- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak, azken urteetan bezala, asmoa duen murrizketak egiteko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren aginduen bitartez eta, gainera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak exijitu behar al dion Caixa Bank-i etxegabetzeak geldiaraz ditzala eta, finantza-entitateak ezetz erantzunez gero, ea Nafarroako Gobernuak funts publikoak kenduko dituen finantza-entitate horretatik, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak iragan urriaren 3an eginiko bileran jorratutako gaiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak proposatu beharrekoak diren Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2012ko ekainaren 8ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

2. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da, eta, hein horretan, onartzerik ez dagoelakoan gaude.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 2. artikuluen 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa:

“Laguntzen edo maileguaren sistemak batera erabiltzen ahalko dira bigarren hori modu gradualean desagertzen doan bitartean.”

Zioak: Nafarroako hezkuntza komunitateko erakunde desberdinek egiaztatu dutenez, mailegu sistemak ez du espero zen moduan funtzionatu. Mailegu sistemarekin jarraitzeak ez du zentzurik, baina horren desagerpena gradualki egiteko bidea ematen da.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 2. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea:

“Honakoei ez zaie aplikatuko errentaren muga: familia ugarietara, kide bat edo gehiago minosbaliotasun egiaztatuarekin duten familiei, terrorismoaren biktimei eta genero-indarkeriaren biktimei”

Zioak: Errentaren muga egokitzea familietan gerta daitezkeen egoera ezberdinetara edota laguntza berezia behar duten egoera pertsonaletara.

5. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 3. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea:

“Finantzaketa publikoa izanen duten 1. artikuluko materialek (testu liburuek eta material didaktikoe) Nafarroan indarrean den curriculum ofiziala bete beharko dute, eta Nafarroako Foru Komunitataren sinbolo instituzionalen nahiz lurralde-egituratze eta egituratze politikoaren arloko araudia.”

Zioak: Idatz-zati berezi batean jasotzea bete egin behar dela curriculumaren eta sinboloen arloan Nafarroan dagoen legedia. Lege proiektuak curriculum aipatzen du soilik, eta ez du sinbolen araudiarekin lotzen.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

3. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

“Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeko laguntzen deialdia aurreko ikasturteko otsailan eginen da; espresuki jasoko ditu errenta-tarteak, eta maiatzean ebatziko da, indarrean den ikasturtea amaitu aurretik.”

Zioak: Ikasleen gurasoek, edo legezko tutoreek ikasturtea amaitu aurretik jakin dezatela lortu ote dituzten hurrengo ikasturteko testu liburuek eta material didaktikoa finantzatzeko laguntzak, halako moduz non modua izan dezaten horiek erosteko edota, nahi izanez gero, mailegu partikularren sistema bat ezartzeko.

8. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Mailegu sistemaren lehentasuna ezartzen duen xedapen gehigarri bakarra indargabetzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako hezkuntza komunitateko erakunde desberdinek egiaztatu dutenez, mailegu sistemak ez du espero zen moduan funtzionatu; ez du zentzurik, beraz, egoera ekonomikoa hobea bada ere berriro ezartzeak.

10. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

11. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du.

Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra aldatzeko zuzenketa.

Laguntza sistema ezarriko zaien ikasturteak aldatzea: 2013-2014 2014-2015 2015-2016

Zioak: 2012-2013 ikasturtean, bistakoa denez, mailegu sistema bakarrik ari da funtzionatzen.

13. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

14. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapen bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpena: Lege honek hezkuntza zerbitzuen berdintasun eskubidearen kontra egiten du. Ikasleak beren errentaren arabera eskubide batez edo beste batez hornitzen ditu, hezkuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak unibertsalak behar dutenean. Nafarroako Gobernua burutzen ari den murrizketen beste atal bat da eta hein horretan onartzerik ez dagoelakoan gaude.

Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut ondoko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten: "Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen." Proiektu hori 2012ko irailaren 21eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 1. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren zioen azalpenak besterik badio ere, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko aparteko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 2. artikulua ez da Nafarroan aplikatzekoa.

Proiektuak berak, zioen azalpenean bertan, kontraesan larria ageri du. Izan ere, batetik hau esaten da: "Ildo horretan, langile publikoen 2012ko abenduko aparteko paga kentzeko neurria, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 2.1 artikuluan jasotakoa, langileen arloko gastuari eusteko neurri bat da, aurrekontuaren betetzean berehalako eragin zuzena izanen duena eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa dena." Bestetik, honakoa dio: "Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan foru legeetan ezarritako berariazko lansari-sistema dela eta, beharrezkoa da foru lege mailako arau bat onestea, neurri hori Nafarroako sektore publikoaren zerbitzuko langileei aplikatzea jasoz." Tesi hori ez da onartzekoa; hau da, Parlamentu honek ez du Gobernu zentralaren esanetara egon behar, eta ez ditu foru legeak nahitaez aldatu behar hark hala agintzen duelako errege lege-

dekretu batez. Edo Estatuarena da eskumena, eta zuzenean aplikatzen da estatu-araudia, edo eskumena Nafarroako Foru Komunitatearena da, eta, orduan, ezin da Errege Lege-dekretua aplikatu, baizik eta berezkoa den legedia.

Azken batean, Errege Lege-dekretua Nafarroan aplikatzeko erabiltzen den argudioa da Errege Lege-dekretuak eskumen-iturri gisa aipaturiko Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluetan adierazitakoak, hau da, Estatuaren eskumen direla "ekonomia-jarduera oro har planifikatzeko oinarriak eta koordinazioa" eta "Estatuaren Ogasunarekiko koordinazioa eta espainiar guztien arteko elkartasuna" (hala ere, berez, bigarren arau horrek ez du eskumenik esleitzen, baizik eta eskumenak erabiltzean aplikatu beharreko printzipioak ezartzen ditu). Egia da zioen azalpenean aipaturiko epaietan Konstituzio Auzitegiak deklaratu zuela, aipatu berri diren artikuluen konstituzionalak oinarri hartuta, Nafarroan aplikatzekoak zirela langile publikoen lansariak izoztu edo mugatzeko zenbait neurri. Baina neurri horiek nabarmen desberdinak ziren hizpide dugun errege lege-dekretukoekin alderatuta. Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 11ko 148/2006 epaiak hau azaltzen du: "Aitortu dugu zilegitasun konstituzionala duela, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen kari-az, Estatuaren aurrekontu orokorrekin 'langile publikoen ordainsarien gehieneko muga orokor' bat ezartzeak, eta, beraz, Estatuak ezin duela 'alde zuzenetik bere kasa ezarri zenbatekoa izanen den autonomia erkidego baten menpeko funtzionario bakoitzaren gehieneko ordainsari-handitze indibiduala' (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 21eko 63/1986 epaia); "Aztergai dugun kasuan, eta kontuan hartuta harreman zuzena dagoela Estatuak politika ekonomiko orokorra finkatzearen eta administrazio publiko guztien zerbitzuko langileen ordainsariak izozteko erabakiaren artean, azken erabaki hori oinarritzeko izatea ere onar daiteke, neurri koiuntural bat denez gero, Estatuaren legegilearen aburuz beharrezkoa dena 1997rako Estatuaren aurrekontuko orokorrekin Legearen aitzinsolasean zehazten diren politika ekonomiko orokorreko helburuak erdiesteko." Konstituzio Auzitegiaren 195/2006 epaiak, ekainaren 22koak, honela dio: "Maiz aitortu dugunez, Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluek eskumen-estaldura ematen diete

Estatuko aurrekontu orokorren legeetan sektore publikoaren zerbitzuko langile guztientzat jasotzen diren ordainsari-mugei, zeinak adierazten baitira gehieneko muga orokorren bidez, haien ordainsari-masaren gehikuntzari dagozkionak”. Alegia, estatuen eskumenekotzat jotzen dena da muga orokorrak edo gehieneko mugak ezartzea ordainsari-masaren gehikuntzari; ez, ordea, funtzionario jakin batzuek jaso beharreko ordainsari zehatzak ezartzea. Horregatik, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 21.2 artikulua dio (lege hori, azken xedapenetatik hirugarrenaren arabera, onetsi zen Konstituzioko 149.1.18 artikulua babesean ez ezik, 149.1.13 artikulua ere): “Ezin izanen da halako ordainsari-gehikuntzarik erabaki non, osotara, ordainsari-masaren gehikuntza bat eraginen baitu handiagoa izanen dena Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak langileen-tzat urtero ezarritako mugak baino”.

Langile publikoen ordainsariei dagozkien muga orokorrak politika ekonomikoko teknika gisa ezartzearen estatu-eskumen hori ametituz ere, oraingoan ez dugu topo egin helburu batzuk ezartzen dituen oinarrizko araudi edo jarraibide batekin, baizik eta arau zehatz batekin, zeinak guztiz eta zeharo aurrezehazten baitu zein den lortu nahi den emaitza iristeko modua eta zer langile publiko zehatzi –beren diru-sarreraren arabera– behar zaien neurria aplikatu (nortzuen ordainsariak gaintitzen duen lanbidearteko gutxieneko soldata 1,5 bider, lanaldi osoagatik, urtealdiko kontaketa eginda eta errendimendurako pizgarriak kenduta, haiei). Konstituzio Auzitegiaren urriaren 30eko 171/1996 epaiak honakoa adierazten du: “Autonomia erkidegoen autonomia finantzarioari murriztapenak ezartzeak, adierazitako moduan konstituzionalki justifikatuta dagoenean ere, ez du esan nahi, noski, osoki Estatuaren eskuetan gelditzen denik murriztapen horien norainokoa eta zenbatekoa. Ezin ahaztuzkoa da ezen, hark eskumen-titulu baten babesean jarduten duenean, hala nola Konstituzioko 149.1.13 artikulua gerizpean, jardute horrek halako modukoa behar duela izan non autonomia-erkidegoei behar adinako erabakitze-askatasuna utziko dien haien eskumen-esparrurako”.

Horrenbestez, tankera horretako xedapenak –zehatzak eta xehakatuak, haien aplikaziorako erabaki-tarterik ez uzteraino– emanez, Estatuko legegilea aldenitu egiten da politika ekonomiko koordinatzearen langintzatik, eta funtzio publiko argi eta garbiaren esparruan barneratzen da. Eta esparru hori, Nafarroan, ez da Estatuaren eskumenekoa, baizik eta Foru Komunitatearenekoa. Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 31ko 24/2002 epaiak dioen bezala: “Funtzionario publikoen

ordainsari-kontzeptu ezberdinen definizioa Konstituzioko 149.1.18 artikulua Estatuari esleitzen dion eskumenean sustraitzen bada ere, haiek kuantifikatzea edo kuantifikatze horri mugak ezartzea –horrek autonomia erkidegoen autonomia finantzarioa gastu-ahalmen gisa mugatzen duen alde-tik– egin beharko da oinarri harturik Konstituzioko 149.1.13 artikulua jasotzen duen eskumen-tituluan eta Konstituzioko 156.1. artikulua aipatzen duen koordinazio-printzipioan; azken kasu horretan, Autonomia Erkidegoen Finantziarioari buruzko Lege Organikoko 2.1.b) artikulua aurrekusten duen norainokoarekin”. Nafarroaren kasuan, eta funtzio publikoan duen eskumenaren esparrua kontuan izanik –eskumen horren muga ez da Estatuko oinarrizko legeria, baizik eta, soilik, “Estatuko oinarrizko legeriak funtzionario publikoari onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak” (Foru Hobekuntzako 49.1.b artikulua)–, ordainkontzeptuak zehaztea Foru Komunitateari dagokio. Konstituzio Auzitegiaren 140/1990 epaiak, irailaren 20koak, azaltzen duen bezala, “(...) Estatuak funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean ematen dituen oinarrizko legeen aurrekuspun guztiek ez dute eskumenaren erabilera mugatuko; «oinarrizko eskubide eta betebeharrak» buruzkoek baino ez dute egingen.” Funtzionarioen oinarrizko eskubide eta betebeharrak, bestalde, nahiz eta jasoak dauden arauen berariazko azterketaren baitan zehaztuak izan behar diren, erakusten dizkigute printzipioz, funtzionarioen estatutu-araubidearen ereduak berak bereizgarri dituen egoera juridikoak, zeinek araubide horren mamia osatzen baitute, eta halakorik egon ezean, estatutu horrek bere itxura galduko luke”.

Errege Lege-dekretua Nafarroan aplikatzea justifikatze aldera Konstituzioko 149.1.13.a eta 156.1 artikulua aipatzearen ondorioei dagokienez, kontuan hartu behar dugu honako hau: Errege Lege-dekretuak 2. artikuluko 2.1 idatz-zatian honakoa dio, literalki: “Funtzionarioek abenduan ez dituzte jasoko 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legeko 22. Bost.2 artikulua aipatzen dituen kopuruak, soldata eta hirurteko gisa”. Aurrekontu lege hori 2012ko ekainaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen; hots, Errege Lege-dekretua baino hamalau egun lehenago bakarrik, eta 22. artikuluan ezartzen ditu funtzionarioei oinarrizko soldaten eta hirurtekoen kontzeptuan ordaindu beharreko kopuruak, hileroko hamabi ordainaldi arruntetan eta ekain nahiz abenduko aparteko bi ordainaldietan. Eta amaitzen da esanez, Errege Lege-dekretuan eta aurreko urteetako Estatuko aurrekontu-legeetan bezalaxe, artikulua horrek oinarrizko izaera duela eta Konstituzioko 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen dela.

Bada, ekainaren 30az geroztik, Nafarroako administrazio publikoak, Nafarroako Gobernua, toki entitateak eta orobat Nafarroako Parlamentua, ez zaizkie funtzionarioei ordaintzen ari, lehenago egin izan duten bezala, Estatuko legerian oinarritako izaera horrekin ezarritako kopuruak. Beste kopuru batzuk ari dira ordaintzen, eta beste kontzeptu batzuetan, Nafarroan Errege Lege-dekretuak ezabatutako abenduko paga eta hirurtekoak existitu ere ez baitira egiten (Nafarroan aparteko pagak ez dira Estatuko legerian bezala kalkulatu, eta kontzeptuak eta zenbatekoak ere ez datoz bat); funtzionarioen mailen eta taldeen sailkapena ere bestelakoa da. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean ezarritako kopuruak ari dira ordaintzen. Hau da, Nafarroako legeria berekia aplikatzen da, eta ez Estatuko oinarritako legeria, berdin delarik Estatuak bere legerian Konstituzioko 149.1.13 eta 156.1 artikulua aldarrikatzea.

Alegia, adostasunez interpretatu izan dute Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak, baina baita Estatuak ere –zeinak bere konstituziokontarakotasun-errekurtsioak ez baititu inoiz ere gai honetara hedatu– ezen Nafarroaren eskumena dela ordainsarien kontzeptuak eta zenbatekoa ezartzea, eta Estatuko oinarritako legeria ezin dela aplikatu, nahiz eta horrek inolako salbuespenik ez egin eta Estatuak ekonomia koordinatzeko dituen eskumenak aldarrikatu. Orain baizik ez da sortu halako tesi hori, dioena Estatuko oinarritako legeria aparteko ordainsariei aplika dakiekeela, une jakin batez bertan behera uzteko. Baina deritzoguna da Estatuaren eskumena dela bi kasuetan, ordaintzeko eta ez ordaintzeko, edo, bestela, Nafarroaren eskumena dela. Ez dirudi egoera asko aldatzen denik Errege Lege-dekretuko 8. artikulua aplikatzeari dagokionez, zeinak aldatu egiten baitu langile publikoen opor- eta baimen-araubidea, eta justifikazio gisa hartzen baitu, halaber, langile-gastuaren arrazionalizazioa: inork ez du pentsatu hori Nafarroan aplikatzerik, opor eta baimenei buruzko foru araubidea nabarmen ezberdina denez gero (aplikatze hori, izatez, ezinezkoa litzateke, foru araubidean existitzen ez diren baimen-egunak –"moscoso" deritzenak– eta opor-egunak –"canoso" gisa ezagutuak– murrizten baitira). Ezta egoera ezberdina denik Errege Lege-dekretua inoiz eman ez izatearen kasurako: zalantzarik gabe, Nafarroako erakunde guztiek foru legeriari jarraituz segituko zuketuen soldatak ordaintzen, eta ez zituzketuen ordainduko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko oinarritako soldatak eta hirurtekoak.

Laburbildurik, ez ohiz kanpoko egoera ekonomiko baten aipamenak ez eta 149.1.13 artikuluko eskumen-titulua aldarrikatze hutsak ere ezin dute behar adinako argudiorik osatu Nafarroa eta Estatuaren arteko eskumen-banaketa hurrenkeraren aplikazioa halako moduz aldatzeko non 20/2012 Errege Lege-dekretuko 2. artikulua aplikatzea justifikatuko bailitzateke.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Parlamentu honek bere desadostasuna agertu du uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretuaren edukiarekin; bai gizarte- eta lan-eskubideak urratzen dituelako, bai Nafarroaren eskumenekin bat ez datorrelako.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

"2. artikulua. Nafarroako sektore publikoaren zerbitzuko langileek aparteko pagak jasotzeko moduaren aldaketa.

1. Nafarroako Administrazio publikoek eta sektore publikoko gainerako erakunde eta entitateek zilegi izanen dute ekain eta abenduko aparteko pagen ordainketa aurreratzea urte bakoitzeko kasuko sei hilekoaren barrenean.

2. Aparteko pagen ordainketa aurreratua langile finkoei nahiz aldi baterako langileei egiten zaie, betiere aurreikusten bada haien zerbitzu harremanak iraunen duela, gutxienez ere, kasuko sei hilekoaren amaierara arte. Aurreikusitako iraupena txikiagoa denean, dagokion zati proportzionala aurreratuko da.

3. Baldin eta, aparteko pagaren ordainketa aurreratu ondoren, zerbitzu harremana edozein arrazoiengatik amaitzen bada aurreikusitako epea baino lehenago, ukituriko langileei egoki den likidazioa egiten zaie, eta, kasua bada, zuzena den zenbatekotik gora jaso den kopurua itzuliko da."

Zioak: Nafarroako administrazio publikoek eta sektore publikoko entitateei malgutasun handiagoa ahalbidetzea aparteko pagen ordainketa kudeatzeko.

4. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“2013an zehar, administrazio publikoek eta Nafarroako sektore publikoko gainerako erakunde eta entitateek zilegi izanen dute langileei urtarrileko eta uztaileko lehenbiziko egunetara aurreratzea aparteko pagen ordainketa, edo 2012ko ekitaldian zehar, eta legearen aginduz, haien ordainsariak gutxitu direneko kopuruak”.

Zioak: Langile eta funtzionarioen eskubideek eta Nafarroako Administrazio eta bere erakunde eta entitateen betebeharrak lege-euskarri bat behar dute kasu bakoitzaren arabera sor daitezkeen soldata-gutxitzeak gainditu ahal izateko.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarriak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenaren testua ez da ez koherentea ez eta begirunetsua ere Nafarroaren eskumen berekiekin.

6. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko lehenbiziko xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuko 1. artikulua kentzeko zuzenketarekin koherentzia mantentzearen.

7. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehiakortasuna

Proiektuko bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuko 1. artikulua kentzeko zuzenketarekin koherentzia mantentzearen.

8. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuko 1. artikulua kentzeko zuzenketarekin koherentzia mantentzearen.

9. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko azken xedapenetan lehena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuko 1. artikulua kentzeko zuzenketarekin koherentzia mantentzearen.

10. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuko 1. artikulua kentzeko zuzenketarekin koherentzia mantentzearen.

11. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako Foru Komunitatearen asmoa da aurrekontu-orekaren baldintzak betetzea eta, gainera, bere estatus politikotik eta eskumen berekietatik eratorritako sustapen-neurriak, lehiakortasunerako eta garapenerako, ezartzea; horrenbestez, defizit, lehiakortasun eta garapenari dagozkien baldintza horiek betetzen baldin badira, lan-harremantetik sortzen diren betebeharrak betetzeko modua dago”.

Zioak: Lege honi aurkezturiko zuzenketekin koherentzia mantentzearen, eta foru-arau hau ez dadin izan beste aginte politiko batekiko menpekotasun erabatekoaren erakusgarri eta aginte politiko horren xedapen baten erreplika; 20/2012 Errege Lege-dekretuarena, alegia.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren izenburua aldatzeko zuzenketa.

Hona izenburu berria:

“Foru Lege proiektua, Nafarroako sektore publiko langileek aparteko lansariak jasotzeko moduren inguruko neurriak ezartzen dituenena.”

Zioak: Artikuluei aurkeztu dizkiegun zuzenkete-kin koherenteak izatearren.

13. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Izenburua aldatzeko zuzenketa.

Foru legeak izenburu hau izan beharko du:

“Foru Legea, aurrekontu egonkortasuna egokitu eta bermatzekoa, eta lehiakortasuna sustatzekoa.”

Zioak: Ez da zuzena lege baten tituluan erreferentzia gisa Estatuaren xedapen bat hartzea –uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua–, are gehiago xedapen horren indarraldia amaituko bada foru lege honentzat aurreikusten den indarraldian zehar.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Espainiako Kazetarien Elkarteen Federazioak 2012ko urriaren 6an Segovian kazetaritzaren alde onetsi zuen manifestuarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Espainiako Kazetarien Elkarteen Federazioak 2012ko urriaren 6an Segovian kazetaritzaren alde onetsi zuen manifestuarekin.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio greba egun bat egiteari, zeinetan gizon eta emakumeak, langileak, doikuntza-politiken aurka agertuko baitira.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta errespetua adierazten ditu, eta egiten ari diren doikuntza-politiken aurka gure herrian trantsizio demokratikotik ezagutu den haustura sozial handiena eragiten ari diren doikuntza hutseko politiken aurka azaltze aldera eginen den greba eguna eta

gizon-emakume eta langileen mobilizazioak direla-eta.

2.- Nafarroako Parlamentuak dei egiten die herritar guztiei erreibindikazio demokratiko horrekin bat egin dezaten, krisiari aurre egiteko estrategia aldatzea lortzeko.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, lankidetza deszentralizatuaren aldekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Legebiltzar autonomiko honetan ordezkaturako talde politikook:

1. Aldarrikatzen dugu lankidetza deszentralizatuaren pobrezia murriztera eta pobrezia eragiten duten arrazoen aurka borrokatuz bideratutako politika publiko bat dela, desberdintasunen aurkako eta giza garapen jasangarri bat sustatzearen aldekoa, zeinetan inplikazio berezia daukaten gizarte zibilak eta tokiko gobernuek, bai Iparraldekoek, bai Hegoaldekoek.

2. Lankidetza deszentralizatuaren esparruan jarduten duten garapenerako gobernu kanpoko erakundeentzako jatorri-aniztasuna, ikusmolde-dibertsitatea eta espezializazio desberdina balioesten ditugu, gure gizartearen aniztasunaren isla direlako eta herrialde txiroetako erkidegoekiko hurbilago egoten laguntzen digutelako.”

3. Estatuan dauden parte-hartze eta koordinazio guneak sendotzea eskatzen dugu –Konferentzia Sektoriala eta Lurraldearteko Batzordea–, bai eta autonomia erkidego batekoak –Lankidetza Kontseiluak– eta toki esparrukoak ere –Lankidetza Kontseiluak–. Orobat eskatzen dugu beren baliabide exekutiboak sendotzea, egiazko uztartze bat eta laguntza eragingarriago bat ziurtatzeko.

4. Apustu egiten dugu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin beren Lankidetza Batzordearen bitartez eta Estatuko Udal eta Probintzien Federazioarekin batera lan egitearen alde, toki esparruan lankidetza-eragileak koordinatzeko eta bere politikak homogeneizatzeko erreferentzia-gune gisa.

5. Sentsibilizazio programak eta Garapenerako Hezkuntzakoak mantentzea eta bultzatzea eskatzen dugu, lankidetza deszentralizatuaren esparru estrategiko gisa hiritar-multzo global kritiko bat eraikitzean, politikoki aktiboa eta sozialki konprometitua planetako erkidego guztientzako bidezko eta ekitatezko giza garapen batekin.

6. Nafarroako Gobernuaren Nazioarteko Lankidetzari buruzko II. Plan Zuzendaria bere printzipio gidarieki eta helburueki leial mantentzea eskatzen dugu, eta doikuntzak egin daitezkeen parte-hartze prozesu zabal batetik abiatuta, lankidetza deszentralizatuko eragile guztiak kontuan hartuta.

6. Errebindikatzen dugu administrazio publikoek berriz ere har dezaten konpromisoa beren aurrekontu orokorretako % 0,7 bideratzeko Garapenerako Lankidetzeko proiektuetara, garapenerako hezkuntzara eta laguntza humanitariora.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua etxebizitza-utzarazpenen betearazpenak gelditzearen alde agertzen baita.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Legebiltzar autonomiko honetan ordezkaturako talde politikoek ondokoa adierazten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Gobernuak egin beharreko zuzemen guztiak egin beharko lituzkeela etxebizitza-utzarazpenen betearazpenak gelditze aldera, harik eta arlo horri buruzko araudi berria indarrean sartu arte, kasuko moratoria ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du berebiziko garrantzia duela Foru Komunitatean jarduten diren finantza- eta kreditu-entitate guztiak abian diren utzarazpen prozedura guztiak borondatez geldiarazteak, arraozi humanitarioak eta fustizia sozialekoak tarteko, eta prozedura horie-

tan sartuta dauden bezeroekiko negoziazio bideak irekitzeak, beharrezkoa den aholkularitza izanda.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du behar diren neurriak babesteko, ordainean ematea arautze aldera, pertsona eta familia guzti-ek etxebizitza bat edukitzeko eskubidearen aitortzaren printzipioari jarraikiz.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitatearentzat interes berezia duela Caixak eta Rural Kutxak utzarazpen prozedura berriak ez betearazteak, harik eta hipoteka arloko legedi berria onetsi arte, hartara aldi baterako moratoriak emanda.

Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die kaltetutako familiei.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa noiz sartuko den indarrean Nafarroako Oinarrizko Laguntzako ordutegia eta arreta jarraitua eta larrialdietakoa arautzen dituen foru dekretua.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa noiz sartuko den indarrean Nafarroako Oinarrizko Laguntzako ordutegia eta arreta jarraitua eta larrialdietakoa arautzen dituen foru dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den azaroaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Orain dela gutxi ezagutu dugu Nafarroako Oinarrizko Laguntzako ordutegia eta arreta jarraitua eta larrialdietakoa arautzen dituen foru dekretuaren zirriborroa. Hori ikusirik, ondokoa jakin nahi dugu:

Noiz sartuko da indarrean? Kontseilariak benetan uste al du behar adina adostutako dokumentu bat dela?

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakitekoa komenigarria ote den Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa komenigarria ote den Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken hilabeteotan eztabaida publiko bat egin da Gizarte Politiketako Departamentuak Osasuna bezalako entitateei edo Espainiako Itzulia bezalako ekitaldiei bideratutako diru-kopuruei buruz.

Kontuan hartuta kirolek, txapelketek edo publizitate-ekitaldiek zenbait departamentu ukitzen

dituztela berez –besteak beste, Ekonomia, Osasun, Hezkuntza edo Turismo departamentuak–, ondoko galdera egiten diogu Gizarte Politiketako kontseilariari:

– Zure ustez, komeni al da Gizarte Politiketako Departamentuan aldaketaren bat egitea, kirola zeharka txerta dadin beste departamentu batzuetan eta, beste arlo batzuei zuzenean eragiten dieenez gero, ez dadin egon soilik zure departamentuaren menpe?

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak lehendakariak uste al duen autokritikarik egin beharko lukeela, agerian geratu ondoren bere Gobernua nafarren ekonomia eta eskubide sozialak hondoratzen ari dela.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak lehendakariak uste al duen autokritikarik egin beharko lukeela, agerian geratu ondoren bere Gobernua nafarren ekonomia eta eskubide sozialak hondoratzen ari dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak lehendakariak uste al du autokritikarik egin beharko lukeela, agerian geratu ondoren UPNren Gobernua nafarren ekonomia eta eskubide sozialak hondoratzen ari dela?

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak, azken urteetan bezala, asmoa duen murrizketak egiteko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren aginduen bitartez eta, gainera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak, azken urteetan bezala, asmoa duen murrizketak egiteko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren aginduen bitartez eta, gainera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

D. Patxi Zabaleta Zabaleta, Nafarroa Baiko legebiltzarkide naizen honek hurrengo premia handiko galdera egiten diot Nafarroako Gobernuko lehendakari andreari:

Jarraitzen al du Nafarroako Gobernuak 2013an Aurrekontu luzatu edo prorrogatuetan, azken urteetan bezala, kenketak eta murrizketak Ekonomia Saileko kontseilariaren aginduen bitartez eta gainera Nafarroako aldizkari ofizialean argitaratu gabe egiteko asmoekin ala aldatuko du jokabide hori 2013rako?

Iruñean 2012ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak exijitu behar al dion Caixa Bank-i etxegabetzeak geldiaraz ditzala eta, finantza-entitateak ezetz erantzunez gero, ea Nafarroako Gobernuak funts publikoak kenduko dituen finantza-entitate horretatik.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak exijitu behar al dion Caixa Bank-i etxegabetzeak geldiaraz ditzala eta, finantza-entitateak ezetz

erantzunez gero, ea Nafarroako Gobernuak funts publikoak kenduko dituen finantza-entitate horretatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverriak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak heldu den azaroaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxak Caixa Bank-en duen partaidetzaren bidez, exijitu

behar al dio Caixa Bank-i geldiaraz ditzala berehalakoan finantza-entitate horrek exekutatzen dituen etxegabetze guztiak? Caixa Bank-ek adieraziz gero ez dituela etxegabetze horiek geldiaraziko, kenduko al ditu Nafarroako Gobernuak bere funts publikoak finantza-entitate horretatik?

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak iragan urriaren 3an eginiko bileran jorratutako gaiei buruzkoa.**GALDERA ERRETIRATZEA**

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2012ko azaroaren 15ean egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak iragan urriaren 3an eginiko bileran jorratutako gaiei buruzkoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak proposatu beharrekoak diren Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Joan den 2012ko otsailaren 24an bukatu zen Nafarroako Kontseiluko kideen agintaldia, 2006ko otsailaren 24an, erakundea eratzean, hasi zena. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak proposatu beharrekoak diren bost kide berriak hautatzeko prozedurari ekin behar zaio.

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiaren txostena, eta kontutan hartuta Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak –Mahaiak 1999ko urriaren 13ko erabakiaren bidez onetsiak– eta Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 4. artikulua, ERABAKI DA:

1. Erabiltzea Nafarroako Kontseiluko kide berriak hautatzeko –azkenengoen agintaldia joan den 2012ko otsailaren 24an bukatu baitzen– Nafarroako Parlamentuak proposatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauak. Arau horiek Legebiltzarreko Mahaiak 1999ko urriaren 13ko erabakiaren bidez onetsi eta 1999ko urriaren 20ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Salbuespen bakarra da 4. araua, hautagaiak aurkezteko epea alegia, zeina 2012ko azaroaren 28ko 12:00etan bukatuko baita.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

